



TOLOSAKO
UDALA

AMAROTZEKO ENTSEGU LOKALAK

PROIEKTUAREN LABURPENA

Argi dago Tolosan egonezin kultural anitz dituen talde ezberdinak daudela eta konkretuki gazte jendearen artean musikarena. Hau praktikan jartzeko arazo ezberdinekin egiten dute topo gazte gehienek, lokal bat lortzearen arazoarekin, alokairu altuak ordaindu beharraren arazoarekin eta abar luze batekin.

Proiektu honen helburua Tolosakoak diren gazte musika taldeek entsaiatzeko toki egokia edukitzea da. Toki honek ezaugarri batzuek bete behar ditu, irisgarritasun aldetik, intsonorizazio mailatik eta abar.

Musika entsaiatzeko espazioa eskatzen duten gazte musika taldeetako kideen bi herenak 18-30 urte bitarte eduki behar dute. Bestalde elkarbizitza eta funtzionamendu arauak errespetatu beharko dituzte. Espazioak 12 taldek entsaiatzeko ahalmena ematen du.

HELBURUAK

- Autogestioan oinarritutako proiektuak sustatu, gazteak talde lanean lan egitera animatu eta beren proiektuen arduradun izan daitezen lortu.
- Lanera espazioen sorrera bultzatu errealitate ezberdinetako gazteak elkar-bizi daitezen.
- Epe laburrean Tolosako musika taldeen elkarte bat sortu dadin eragin.
- Gazteen sormen eta berrikuntza ahalmena ezagutarazi, gazteen irudi positiboa sustatuz.
- Gazteen errealitatetik abiatuz, gazteen sormen musikala bultzatu, elementu tekniko, aholkularitza eta baliabide ezberdinak eskainiz.



TOLOSAKO
UDALA

- Tolosako musika arloko sortze-lana Tolosan zehar zabaldu.

AMAROTZEKO ENTSEGU LOKALAK ARAUTEGIA


- Orduategia. Erabilera orduategia astelehenetik ostiralera 10etatik 14etara eta 16etatik 21:30etara eta larunbata 12etatik 14etara eta 17etatik 20etara.
- Garbiketa. Eraikina eta bainuen mantenua eta garbiketarako plana erabiltzaileen artean adostuko da. Gutxienez astean behin (astelehenetan) pasako dira komunak eta espazio irekiak. Talde bakoitzaren ardura izango da bere lokalaren garbitasuna.
- Argia. Lokal guztiek argiaren kontsumorako kontadorea dute. Kontsumo horren arabera talde bakoitzak egingo du ordainketa.
- Lokaletan taldeentzako ezinbestekoak diren altzariak besterik ez dira sartuko (sofak, ... ez dira onartuko)
- Lokaletan alkohola edatea eta erretzea debekatuta dago.
- Erabiltzaileen artean jarraipen bilera bat egingo da hilean behin, hileko azkeneko ostegunean, arratsaldeko 6etan lokalean bertan. Bilera horretan udaletxeko ordezkari batek gutxienez parte hartuko du.
- Talde bakoitzeko arduradun batek izango du giltza eta pertsona bera izango da udalarekin harremana izango duena. Udaleko ordezkariak edozein momentutan lokaletara sartzeko aukera izango dute. Horretarako lokal guztiak irekitzeko giltza izango du. Erabiltzaileek ezin izango dute sarraila aldatu, Udalari esandako eta udalak onartutako arrazoiengatik ez bada. Giltza aldatuz gero, kopia bat entregatu beharko du Udaletxean.
- Lokala erabiltzeak ez du eskubiderik ematen era eskusiboan erabili ahal izateko. Beharren arabera ahalbideratuko da. Materiala uzteko irtenbideak bilatuko dira.
- Bolumena. Erabiltzaileek kontutan izango dute bolumena. Inondik ere ez da 55 dezibeliotik pasako.
- Lehentasuna izango dute kideen erdia gutxienez Tolosarrez osaturik dauden taldeak, baita gizon eta emakumez osaturik daudenak eta baita 30 urte bitarteko gazteek ere.



TOLOSAKO
UDALA

PLANOAK

beheko solairua



lehen solairua

